

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2016ko UZTAILAREN 28an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko uztailaren 28an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2016ko uztailaren 7an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 7 de julio.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Kultur etxea eta Udaletxearen garbiketa zerbitzuaren esleipena, hala bada./ Adjudicación del servicio de limpieza de la Kultur etxea y Ayuntamiento.**
- 4. Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuen esleipena, hala bada./Adjudicación del servicio de urbanismo y arquitectura al Ayuntamiento de Larraul.**
- 5. Tolosaldea Garatzen-i 2016 urteko bigarren ekarpena onestea, hala bada./Aprobación de la 2ªaportación económica correspondiente al ejercicio 2016 a Tolosaldea Garatzen.**
- 6. 2015/2016 Ikasturteko Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzen onespina, hala bada./Aprobación de las**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

solicitudes de ayudas económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2015/2016.

7. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
8. Beste batzuk/Otros.
9. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2016 urteko uztailaren 7ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

17/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 8koa, S.B. andreari, Larraulgo Poligono 1,222-3ko terrenoetako lursailetik pinudiak atera behar zuenez, herri bidea erabiltzeagatik, Udaletxe honetan jarritako fidantza bueltatzea, lanak bukatu direlako, ebazten duena.

18/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 1ekoa, N.E.J. andreak eginiko eskaerak onestea, ebazten duena.

19/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 12koa, A.U. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Kirol Elkartearen helbide soziala Udaletxea izatea, ebazten duena.

20/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 28koa, Secretaria General de Coordinación Autonómica y Local de la Secretaría de Estado de Administraciones Públicas del Ministerio de Hacienda y Administración Pública-k eginiko errekerimenduari erantzutea, ebazten duena.


Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

KULTUR ETXEA ETA UDALETXEAREN GARBIKETA ZUERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2013/2014 ikasturterako kultur etxearen garbiketa zerbitzua Larraulgo Udalak bere gain hartu zuela, Larraulgo Guraso Elkarteak jakitera eman zuten, ez zutelako jarraitu behar zerbitzu hau eskaintzen.

Ikusirik, ordutik hona, garbitasun zerbitzua, kontratu bidez esleitua izan dela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, 2016/2017 ikasturterako udal eraikinen garbitasun kontratua esleitu ahal izateko hiru enpresei eskatu zaiela aurrekontua, kontratu txiki bat delako. Hain zuen, Lidoinsa, Xoilan eta Zu eta biok enpresei. Hiru aurrekontuen artean egokiena Zu eta biok enpresak aurkeztu dutelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Zu eta biok enpresari, Kultur etxea eta Udaletxea garbitzeko aurkezturiko aurrekontua onestea eta zerbitzua esleitzea, esleipena 2016 ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31rarte izango da, ondorengo lanak egiteko aurkezturiko aurrekontua (orduak irailean zehaztuko dira, eraikinak izango duten erabilera, orduan finkatuko delako):

Garbiketa:

Kultur etxea: Egunero 1.5 ordu (0.5+1)

Udala: Astean 1.5ordu

Orduko prezioa: 18,57euro

Eraikin bakoitzean kristalak garbitzeko bi ordu eta erdi beharko dira, proposamena Udaletxea urtean behin eta Kultur etxea urtean hiru edo lau aldiz.

Orduko prezioa: 18,57 euro.

BIGARRENA:Zu eta biok enpresari jakinaraztea, Udalaren esku egongo dela, garbitasunari buruz kezak badaude edo fakturarekin adostasun faltak sortzen badira, edozein momentutan kontratua moztu ahal izango duela, inolako kalte-ordainik gabe.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Zu eta Biok, Xoilan eta LIDOINSA enpresei ematea.


LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOALKULARITZA ZERBITZUEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzua, Larraulgo Udalean eskaintzen hasi zela 2015 urtean, astean bi ordu Udaletxean dagokion zerbitzua eskainiaz.

Ikusirik, orain arte Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoari aurrekontu bat eskatu zaiola, aipaturiko zerbitzua prestatzeko.

Ikusirik Eba Erkizi Brion arkitektoak aipaturiko aurrekontua aurkeztu duela, ondorengo diolarik:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“LARRAULGO URDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOHKULARITZA ZERBITZUEN LAN PROPOSAMENA

Proposamen honen helburua, Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza gidatuko dituzten irizpideak zehaztea izango da.

1.-GARATU BEHARREKO LANAK

Egin beharreko lanak hurrengoak izango dira:

- *Herritarren hirigintza kontsultei arreta zerbitzua.*
- *Obren kontrola.*
- *Obra txikien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Obra handien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Sailkatutako jardueren baimenari buruzko txostenak.*
- *Jarduera salbuetsien baimenari buruzko txostenak.*
- *Planeamendu tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Gestio tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Hirigintza diziplinako txostenak.*
- *Segregazioei buruzko txostenak.*
- *Hirigintza balorazioak.*
- *Alkateak, udal bazkideek edo udal idazkaritzak eskatutako beste edozein motatako txosten edo azterketak egitea.*

Lan hauetaz gain, eta udalak eskaturik hirigintza aholkularitzarekin loturiko lan eta informazio bileretara joango da, bai udaletxean bertan edota kanpo administrazioetan, ala nola Diputazioan, Eusko Jaurlaritzan...

Era berean eta kasua balitz, obra eta hirigintzako udal batzordeetara joango da, udal bazkidek beraien erabaki hartzeetan aholkua emateko.


2.-LANTOKIA

Herritarrentzat aholkularitza zerbitzuak eta bestelako hirigintza lanak, astero bi orduz udaletxean egingo dira.

Denbora honetatik kanpo egin ezin diren txosten edo aholkularitza lanak, sinatzen duen arkitekto honen bulegoan egingo dira, eta gehienez, beraien eskaeratik bi aste barruan entregatuko dira.

Bilerei dagozkien beste lanak, udaletxean bertan edo dagokion administrazioan burutuko dira.

3.-ORDAINSARIA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udaletxean hilero aholkularitza lanetik jasotako ordainsaria 525,00€ (BEZ-a gabe) izango da.

Ordu hauetatik kanpo gertatzen diren lanen ordainsaria, egindako lanordu kopuruetan eta joan-etorrietan erabilitako denboran neurtuko da, hilero 52,50€/orduko fakturaturuz, ondoren dagokion BEZ-a gehituz.

Hurrengo urteei dagokienez, kopuru hau “ kontsumo prezioen indizea ”-aren arabera gehituko da.”

Ikusirik aipaturiko kontratua, kontratu txiki bat dela ez delako 18.000 eurotako gastua gainditzen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Eba Erkizi Brion Arkitektoari, Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuaren kontratua esleitzea, urtebetez, 2016ko irailean hasiko delarik bere zerbitzua prestatzen eta 2017ko abuztuaren 31an bukatuko delarik. Astean bi orduz, Larraulgo Udaletxean bere zerbitzua eskainiko duelarik, hilean 525,00 eurotako diru-kopuruaren truke. Aipaturiko ordutegi horretarik aparte, Udalak eskatutako lanak egiteagatik fakturatuko duen ordainsaria 52,50€/ordukoa izango da.

BIGARRENA: Eba Erkizia Brion Arkitektoari jakinaraztea, Larraulgo Udaletxera bertaratu beharko duela dagokion kontratua sinatzera.

HIRUGARRENA: Aneli Urbietta Alkate-Lehendakari andrea ahalmenu aipaturiko kontratua sina dezan.


LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN-i 2016 URTEKO BIGARREN EKARPENA ONESTE, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2015eko abenduak 17ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2016 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 3.199,00 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, 2016ko martxoaren 3an egindako Udalbatzarrean, Tolosaldea Garatzen 3.199,00 eurotako ekarpenaren gastua onestu zela, lehen ordainketa martxoaren 30ean egiteko onespena eman zitzaionlarik.

Ikusirik, aipaturiko ekarpenaren bigarren zatia irailaren 30erako egin behar dela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, irailaren 30erako, 2016urteko ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa burutzea onestea, hau da, 1.599,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 1.599,50 eurotako gastua onestea.

SEIGARREN PUNTUA

2015/2016 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN ONESPENA, HALA BADA


Ikusirik Larraulgo Udalak 2016ko uztailaren 7an ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2015-2016 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2, 3 eta 4 oinarriak betetzen dituztela, ondorengoak direlarik:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA
I.S.G.	EUSKARA
F.A.O.	EUSKARA
P.P.S.	EUSKARA
J.G.A.	EUSKARA
P.H.G	EUSKARA
K.V.D.W.	EUSKARA
L.P.O.	EUSKARA

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- 2015-2016 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea, diru-laguntza eskaturiko % 100 izango delarik. Eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

BIGARRENA.- 2016 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuei ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IBERDROLA	80,13
IBERDROLA	153,15
ULAH	363,00
LIDOINSA	738,10
CORREOS	7,32
GALPARSORO	108,90
SUMINISTROS MAIZ	122,52
BELAKO	230,87
BERRI LANTEGIA	66,11
MOVISTAR	57,41
MOVISTAR	133,69
MOVISTAR	18,80
ASTEASUKO UDALA	60,00
REPSOL	56,57
REPSOL	11,07
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	951,36

Udalbatzarrak **ah**o batez hurrengoa,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **3.159,00** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1. HERRIKO JAI BATZORDEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA.

Ikusirik Herriko jai batzordeak antolatzen dituela, San Esteban eta San Bartolome, herriko jaietako egitaraua.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, aipaturiko egitaraua antolatzeko Udalak 7.000 eurotako ekarpena burutzen diola Herriko jai batzordeari, azken honek, jaiak amaitzean, egindako gastu guztien kitapena aurkezten diolarik Larraulgo Udalari.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Herriko jai batzordeari 7.000 eurotako ekarpenari dagokion gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

BIGARRENA: Herriko jai batzordeari jakitera ematea, festak amaitu ondoren gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Larraulgo Udaletxean.

8.2.DINA 7 KULTUR ELKARTEARI LARRAULGO MUSEO ETNOGRAFIKOA AURRERA ERAMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik, Dina 7 Kultur Elkarteak Larraulgo Museo Etnografikoaren zerbitzua eskeintzen duela urtean bertan hainbat jarduera burutzen dituztelarik. Orain arte Hitzarmen bidez arautzen zen, urtean Larraulgo Udalak zerbitzu hau eskaintzeagatik diru-laguntza bat ematen ziolarik Dina 7 Kultur Elkarteari.


Ikusirik, 2016 urterako, DINA 7 Kultur Elkarteak Museoaren zerbitzua eskaintzeko, kontratu bidez esleitzea adostu duela Larraulgo Udalarekin, horretarako ondorengo aurrekontua aurkeztu duelarik (kontratu txiki bat izanik, aurrekontu batekin nahikoa izango da, aipaturiko kontratua esleitzeko):

AURREKONTUA: 001

DATA: 2016/07/28

KONTZEPTUA

LINUA izeneko programa didaktikoa:	8.368,47€
-linu-putzua berreraiki, lur sailak prestatu eta hazia erein	
-Uzta bildu, haziak kendu, linu-putzuan berati, ihartu,...prozesu guztia eta erakustaldia Aste Kulturalean	
-Eskuliburua	
TAILERRAK:	3.418,18€
-Pasta eta ogia, olio eta ukenduak sendabelarrarekin, egurra	
BEHIN-BEHINEKO ERAKUSKETA: BINILOZKO EUSKAL DISKAK	1.242,67€
2016 HEGALDI LARRAULEN izeneko ESKULTURA SORTA	4.970,68€
GUZTIRA	18.000€



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: DINA 7 Kultur Elkarteari, Larraulgo Museo Etnografikoaren zerbitzua eskaintzeko kontratua esleitzea, aurrekontuan zehazten diren ekintzak burutuko direlarik. Bere kostua 18.000 euro izango da. Aipaturiko diru kopurua, Larraulgo Udalak ordainduko duela, DINA 7 Elkarreak ekintzak burutu ahala, azken honek dagokion faktura aurkeztu eta Udalbatzak onartu ondoren.

BIGARRENA: DINA 7 Kultur Elkarteari jakitera ematea, Larraulgo Udalak, urte honetatik aurrera eta legealdia bukatu bitartean ez diola diru-laguntzarik emango Larraulgo Museo Etnografikoaren zerbitzua eskaintzeagatik.

HIRUGARRENA: DINA 7 Kultur Elkarreak, Larraulgo Museo Etnografikoaren zerbitzua eskaini beharko du Udaletxearen legealdi bukaerarte.

LAUGARRENA: DINA 7 Kultur Elkarteko legezko ordezkariari jakitera ematea, Larraulgo Udaletxera bertaratu beharko duela dagokion kontratua sinatzera.

BOSTGARRENA: Aneli Urbietak Alkate-Lehendakari andrea ahalmenu aipaturiko kontratua sina dezan.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.


8.3.BEOBIDEGAIN AUZOAN ZEUDEN ZABOR ONTZIAK KENTZEKO ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik, Beobidegain auzoan kokaturik dauden zabor ontzien gaur egungo terreno jabeak, Udaletxeari galdetu diola ze kontratu mota dagoen bertan aipaturiko ontziak egoteko.

Ikusirik, Larraulgo Udalak aipaturiko zabor ontziak jarri ahal izateko bere garaian Xabier Mujika Alkateak Martin Ariceta jaunaren ahozko adostasun bat jaso zuela, 8 urtez ontziak bertan egon direlarik.

Terreno jabearen idatzia kontutan izanik, non dioen kontratu bidezko adostasun bat ez balego Beobidegain auzoaren parean, bere terrenoan, kokaturik dauden zabor ontziak kendu beharko dituela Larraulgo Udalak.

Ikusirik, Larraulgo Udalak M.L. S.S. andrearekin ezin izan duela adostasun batera iritsi.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, Larraulgo Udalak Beobidegain auzoko bizilagunekin izandako bilera adostu zena, hau da, aipaturiko auzotik kentzea eta frontoi ondoan uztea zabor ontzien kokalekua.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Beobidegain auzoaren parean dauden zabor ontziak kendu eta Frontoi atzeko kokalekua puntu bakarra uztea zaborra bota ahal izateko.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.40 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA